

GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIA SUSTATZEN DUEN ERAKUNDEA BILAKATZEKO IBILBIDEA: PROPOSAMEN BATZUK

Laguntzailea:



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org
-en kanpaina bat



GATAZKARIK
GABEKO
TEKNOLOGIA

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

lortzearen alde



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Aita Lojendio, 2 - 2º 48008 Bilbo. Tel. +34 944 151 135
Barañain Etorbidea, 2. 31011 Iruñea. Tel. +34 948 231 302
Andía, 3. 20004 Donostia. Tel. +34 943 275 173
Monseñor Estenaga, 1. 01002 Gasteiz. Tel. +34 945 202 676
alboan@alboan.org / www.alboan.org

SARRERA

Gure telefono mugikorrak, ordenagailuak eta beste teknologia batzuk fabrikatzeko ezinbestekoak diren mineral asko erdi esklabotzako baldintzetan erauzten dira eta haien legez kanpoko merkataritzak talde armatuak finantzatzen laguntzen du, hainbat lurraldetako gatazkak betiketuz, Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdean gertatzen den bezala.

Egoera horren aurrean, “**Gatazkarik Gabeko Teknologia**” kanpainak (www.gatazkarikgabekoteknologia.org), teknologiaren eta indarkeriaren arteko loturak haustera bultzatu nahi gaitu. **ALBOAN GKE**ren ekimen honen asmoa da mineralen erauzketa intentsibo eta neurrigabeak eta pertsona eta komunitateen beharrak kontutan hartzen ez dituen merkataritza sistematik sortzen dituzten Giza Eskubideen urraketak salatzea eta horren aurka egiteko proposamenak aurkeztea.

Ikastetxe¹ ugari agertu dira teknologia eta indarkeriaren arteko loturak hausteko erronkaren alde. Dokumentu honen helburua, hain zuzen ere, **gatazkarik gabeko teknologia gune bihurtu nahi diren eskola eta taldeei ideiak eta aukerak luzatzea** da.


Proposamena honakoa da: gatazkarik gabeko teknologia sustatzen duen erakunde bat bilakatzeko erronkari heltzea. Honek bi dimentsio ditu:

- a) Hezkuntza komunitateak gatazkarik gabeko teknologia sustatzearen aldeko ekimenak aurrera eramatea.
- b) Gatazka teknologiarik gabeko gune bat bilakatzea, hau da, erakundean bertan erabiltzen den teknologiaren kontsumo, erabilera eta bazterketa irizpideak ahalik eta zintzoenak izatea, giza eskubideen bermearen ikuspuntutik.

Gure abiapuntua esperientzia da, hots, azken urteotan zehar giza eskubideak eta teknologiaren erabilera arduratsua sustatzeko **ALBOAN**-ekin bat egin duten eskolek aurrera eraman dituzten ekimen konkrituak izango ditugu eredu. Horrekin batera beste eskualde batzuetan egindako esperientzia batzuk ere aipatuko ditugu, hala nola “**Enough project**” erakundearen “**Conflict Free Campus Initiative**” (<https://enoughproject.org/get-involved/cfci>)

DONE JAKUE BIDEA METAFORA BEZALA

Proiektuak aurrera atera daitezen, komeni da pauso eta irizpide batzuk kontutan hartzea. Gatazka teknologiarik gabeko gune bilakatzea ez da egun batetik bestera egiten: prozesu bat martxan jartzea suposatzen du, ibilbide bat marraztea. Ibilbidea egiteko pausuak zehazteko orduan, metafora bat erabiliko dugu: Done Jakue Bidea. Hona hemen eman beharreko pausuak eta kontutan hartu beharreko hainbat elementu:



1. ETAPAK ZEHAZTU, HELMUGA ZEIN DEN KONTUTAN HARTURIK

Eskola komunitatea osatzen duten pertsona guztien artean teknologia kontsumo arduratsua sustatzea, eskolak berak erosketa eta errefuxarako erabiltzen dituen irizpideak moldatzea, komunitateak gaiak duen kontzientzia eta konpromezu maila sakontzea, pausoz pauso baino ezin daiteke lortu.

Done Jakue bideko erromesek badakite Santiago de Compostela-ra iritsi nahi dutela; baino nondik habiatzen diren kontutan hartuta, edo parte hartzaileen entrenamendu maila edo bidaiazteko duten denbora-aren arabera, etapa desberdinak ezartzen dituzte helmugara iritsi aurretik.

2. BIDAIA ANTOLATU

Bidai bat antolatzen dugunean badira kontutan hartu beharreko gauza asko: zein baliabide ditugun; zenbat pertsonak hartuko duten parte; bidea egiteko beharko diren lehengaiak (motxilan sartu beharreko janaria, materialak, botak, ura etab.). Pauso hau eta aurrekoa, etapak zehaztearena alegia, elkarrekin eman ohi dira: etapak dauden baliabideen arabera ezartzen dira.

Garrantzitsua da ere bidelagunak zeintzuk izango diren zehaztea: bideari ekin nahi diona irakasle bat da edo irakasle talde bat? Ikasle talde bat agian? Zuzendaritzak luzatu al du ideia? Familien elkarteak? Bidelagunek erraztu dezakete noraino iritsi gaitezken: irakasle batek errazagoa izango du ekimen bat aurrera ateratzea zuzendaritzaren onspena badu, adibidez. Done Jakue bidea egiten duten erromesen kasuan ere bada horrelakorik: batzuk badute autoz zama eramaten dieten pertsonen laguntza eta, autoz doazenak ezin badira ere erromes kontsideratu, bidea oinez egiten ari direnen zama asko arintzen laguntzen dutela zalantzarik ez dago.

3. BIDEARI EGIN!

Denbora, baliabideak, etapak, nortzuk, noren laguntzaz, nola eta noraino joan nahi den zehaztuta dago. Momentu honetarako “Erromes kredentziala” eskuratu behar da ibilbideko mugarrietan zigilua ezartzeko², eta argazki makina eta bideko gauzarik garrantzitsu eta bereziki-
nak apuntatzeko koaderno bat motxilan sartzea ere gomendagarria da.

Bideko pasarte batzuk bereziki politak izango dira. Beste batzuk ustez baino aldapatsu eta neketsuagoak. Tarteren bat ez da agian bereziki zirrargarria izango. Aurretik mapan marraztutako ibilbidea moldatu nahi izatea ere gerta daiteke. Bidean beste batzuen ezagutza egingo da, eta bide pasarte edo atal batzuk elkarrekin egitea erabakiko da... ala ez.

Horrelaxe gertatzen da proiektu bat aurrera eraman behar denean ere. Badira aspergarri ala gogaikarri gertatu daitezken momentuak, espero genuen bezala ateratzen ez diren jarduerak, eta besteengandik espero ez genituen erantzunak jaso ditzakegu (onerako ala txarrerako).

Proiektua bat aurrera eramatean garrantzitsua da etengabeko ebaluazioa edo ebaluazio jarraitua egitea, hots, prozesuaren barnean momentu batzuk gordetzea proiektua nola doan berrikusteko eta egin beharreko moldaketak ezartzeko. Ibilbidearen metaforari berriz ere helduz, garrantzitsua da atsedanak hartzeko uneak ezartzea. Horiek iparrorratza ongi jarrita dagoela ziurtatu eta mapari begiradatxo bat emateko erabili behar dira. Ahal den guztietan ere elkarrekin salda bero bat elkarrikteta onean hartu beharra dago, energia berrituekin aurrera gogotsu jarraitu ahal izateko.

4. **EGINDAKO IBILBIDEAREN IRUZKINA EGIN ETA ELKARBANATU. ETA ORAIN... ZEIN DA HURRENGO ETAPA?**

Helmuga bat lortu dugu. Baliteke ez izatea aurreikusitakoa, baina bidearen zati bat egin da, horretan ez dago zalantzarik. Egindako ibilbidea mapan marraztu, iritsi garen puntua ongi zehaztu, eta bidean ikasitakoak kontutan hartuz hurrengo etapa aurreikustea: hor dago orain koska.

Mahai gainera atera mapak, erromes kredentziala, bideko egunkaria, argazkiak. Begirada atzera bota eta egindako ibilbideari errepaso bat emateko unea da. Zein ikasketa atera ditugu? Gai al gara egin dugun ibilbidea beste batzuei azaltzeko?

Garrantzitsua da argitzea gure metaforak baduela “akats” bat: helmuga ez da Santiago de Compostela bezain konkretua eta beti izango da behin-behinekoa. Poliki hasi eta handitzen joan daiteke proiektua: gatazkarik gabeko teknologia sustatzen duen gela bat izaten hasi gaitezke, gero gatazkarik gabeko teknologia sustatzen duen zikloa, eta horrela gatazkarik gabeko teknologia sustatzen duen eskola izateraino, ingurukoak ere esfortzu horretara batuz.

Teknologia eta indarkeriaren arteko loturak hausteko bidean bidegurutzeak ugariak dira. Erromesek badakite ostera bideak ikasketa sakonak ekarriko dizkiela: erromesaldiaren gakoa bidean dago helburuan baino gehiago, beti ere norabidea Giza Eskubideen iparrorratza galdu gabe zehazten badugu. Hori kontutan hartuta, orain, zein da hurrengo etapa?

INDARKERIA ETA TEKNOLOGIAREN ARTEKO LOTUREN APURKETA SUSTATZEAREN ALDEKO ESPERIENTZIAK

Gatazkarik Gabeko Teknologia sustatzen duen erakundea bilakatzeko prozesuan, eskola bakoitzak bere ibilbidea askatasunez zein autonomiaz zehaztu behar duela badakigu. Badakigu ere lagungarria dela helburu beraren alde lan egin duten beste erakunde batzuen esperientzia ezagutzea. Horregatik, atal honetan **ALBOAN**en Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainarekin bat egin duten hainbat erakundek egindako jarduerak aurkeztuko ditugu, **“Enough Project”** bezalako beste ekimenekin batera.

Aurkezten ditugun jarduerak inspirazio iturri izatea espero dugu. Eskola bakoitzak bere ibilbidea zehazteko orduan, hau da, Gatazkarik Gabeko Teknologia baten zaldeko proiektua martxan jartzeko orduan kontutan hartzeko informazioa da. Eskola bakoitzak erabakiko du nola erabili egin nahi duen ibilbidearen arabera.

HELBURUA

DIRU ETA FUNTSEN BILKETA

SENTSIBILIZAZIO ETA INTZIDENTZIA

PRESTAKUNTZA

GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIAREN ERAKUNDETZEA ESKOLAN

EKINTZA

Bokata eta txokolatada solidarioa

Mugikorren bilketa

Informazio-liburuxka

Abesti bat abestu

Gatazkarik Gabeko Teknologiaren aldeko leloa

Mural esanguratsua

Ibilaldi solidarioa

Sinaduren bilketa

Hezitzaileen prestakuntza

Ikasleen prestakuntza

Lehiaketetan parte hartu edota antolatu

Guraso eta hezkuntza komunitateari zuzendutako hitzaldi eta jarduerak

Erakusketa antolatu

Talde dinamizatzailea sortu

Gatazkarik Gabeko Teknologia Curriculum ofizialean sartu

Erosketa etikoa, erabilera arduratsua eta birziklatze politika

Gatazkarik gabeko teknologia baten aldeko adierazpen instituzionala

1.

DIRU EDOTA FUNTSEN BILKETA

ALBOAN lankidetzan ari da Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko **emakumeen** egoera (ikusi <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/emakumeak/>) eta lekualdatutako pertsonen **hezkuntza** aukerak (ikusi <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/hezkuntza/>) hobetzearen alde. Proiektu horiei laguntzeko asmoz, funtsen bilketarako ekintzak antolatu dituzte hainbat eskolek.⁴

- Adibide bat **bokata eta txokolatada solidarioa**arena da: IES Barañain eskolak 2017an Bokata Solidarioa deituriko ekimena burutu zuen; eta Mundaiz eskolak, “Kongoko konfliktoa: GGT kanpaina”n 2017an txokolatada solidarioa.

- Kongoko proiektuetarako dirua lortzen laguntzen duen beste ekimen bat, aipamen berezia merezi duena, **telefono mugikorren bilketa** da. **ALBOAN**en **“Mugikorrak Kongoren alde”** kanpainarekin (ikusi <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/mugikorrak-kongoren-alde/>) bat egin dute eskola askok.

2. Eskola komunitateko kideei gonbit egiten zaie erabili gabeko mugikorak birziklatzeko eman ditzaten. Modu honetan, mugikorak birziklatuz lortzen den dirua Kongoko Errepublika Demokratikoko proiektueta-
ra bideratzen da; eta horrekin batera ingurumenaren zaintzaren eta kontsumo arduratsuaren aldeko mezua zabaltzen da.

SENTSIBILIZAZIOA ETA INTZIDENTZIA

Sentsibilizazioarekin hezkuntza komunitateko kideek teknologia eta biolentziaren arteko loturen inguruko informazioa izan dezatela lortu nahi da, eta baita egoera horren aurrean jarrera bat har dezatela, lotura horiek haustearen aldeko jarrera alegia.

Sentsibilizazio prozesuan hezkuntza komunitateko kide desberdinek izan dezakete protagonismoa eta komunitateko beste edozein kiderengana zuzenduta egon. Prozesua kateatzea ere badago: adibidez irakasleek ikasleak sentsibilizatu ditzakete hasiera batean, eta gero ikasleek euren familiak. Eskolaren barruan egiten diren ekintzez gain, eskolatik kanpoko komunitatera begira ere egin daitezke ekintzak.

Adibideen artean honakoak topa ditzakegu:

- **Informazio-liburuxka:** ALBOANek gaiaren inguruko informazio ugari eskaintzen du bere Gatazkarik Gabeko Teknologia Kanpainaren web orrialdean: www.gatazkarikgabekoteknologia.org Informazio horretan oinarrituta zein beste informazio iturri batzuk erabiliz, teknologia eta biolentziaren arteko lotura eta hori hausteko aukerei buruzko liburuxkak informatiboak prestatu daitezke eskolan zehar banatu ahal izateko.⁵

Informazio-liburuxka zein beste motatako ikus-entzunezko informazioa (hala nola bideoak) modu digitalean ere partekatu daiteke, **whatsapp** zein **posta elektronikoa** bezalako bitartekoak erabiliz. Hau da gazteengana heltzeko bide errazenetarikoa, baita familia askotara heltzeko ere.⁶

- **Abesti bat abestu:** Gatazkarik Gabeko Teknologiaren aldeko mezuan oinarritzen diren abestiak landu zein abestu ditzakete gazteek, hala nola honen bideo bat egin.⁷

- **Gatazkarik Gabeko Teknologiaren kanpainaren aldeko Leloa:** Eskola Gatazkarik Gabeko Teknologiaren alde azaltzeko, ikasleek horren aldeko lelo bat egin dezakete. Era desberdinak daude leloa zein izango den erabakitzeko, esate baterako bozketa.⁸

- **Mural esanguratsuak:** Gatazkarik Gabeko Teknologiaren inguruko informazioa muralen bidez zabal daiteke eskola zein beste espazioetan zehar. Ikasleek murala egiteko ALBOANeko kanpaina honen inguruko informazioa aldezturik lantzea komenigarria da, ostean muralean informazio esanguratsuena ipini ahal izateko.⁹

- **Ibilaldi solidarioa:** Eskolan zehar edota herrian zehar egin daiteke ibilaldia eta nahi adina jenderi egin dakioke eskaintza, geroz eta jende gehiagok parte hartzen badu mezua gehiago zabalduko baita.¹⁰

Ibilaldian zehar kartelak zein pankartak eraman daitezke, liburuxkak jendearen artean banatu, teknologia arduratsuaren aldeko inguruko leloak oihukatu eta abestiak abestu, edota mural solidario bat eskegiz edota elkarrekin eraikiz amaitu bidea. Honekin esan nahi da **aipatu ditugun ekintzak ez direla zergatik isolaturik joan behar, eta modu egoki eta koherente batetan batuz gero indar handiagoa hartu dezakete.**

Intzidentziaz ari garenean, eragin bat sortzeaz ari gara. Aurretik aipatu diren ekintza guztiek bilatzen dute besteengan eragin bat sortzea: kontzientzia piztu edo sakondu eta erabaki arduratsuak hartzera bultzatu, alegia. Baina bada ere erabaki politikoetan eragina izateko egin izan den ekintza konkretu bat, aipamen berezia merezi duena: sinaduren bilketa.

- **Sinaduren bilketa** (<https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/firma/>): **ALBOAN**ek askotan eraman du aurrera sinaduren bilketa, ordezkari gizarte konprometitu zein kontzientziatu baten aldarrikapen ahotsa entzun dezaten. **ALBOAN**ek sinadura bilketa handia eraman du azken urteotan europar gizarte zibileko beste hainbat erakundeekin batera, eta 2017an Europar Batasunak gatazka-eremuetan mineralen hornidura arduratsua sustatzeko lege bat onartzea lortu genuen. Berri ona da, baina ez da nahikoa. Mineral gordin edo prozesatuko inportatzaileei bakarrik eragiten die, eta 2021eko urtarrilaren 1 arte ez da eraginkorra izango. Horregatik, teknologiaren eta giza eskubideak urratzen dituzten arteko lotura apurtzeko, sinadurak oraindik dira beharrezkoak mineralen nazioarteko salerosketak gatazka armatuak sustatzea galazaziko duen Europako Direktiba baten alde egiteko. Eskola eta talde desberdinak ekimen honen parte izan daitezke.



PRESTAKUNTZA JARDUERAK

ALBOANek urteak daramatza hezkuntza formaleko zein ez formaleko profesionalekin elkarlanean, hezkuntza materialak zein proposamen didaktiko ezberdinak eskainiz adin eta ziklo desberdinetarako.¹¹ Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpaina barruan **ALBOAN**ek **15 fitxa didaktiko** atera ditu¹² eta fitxa horiekin batera **posterrak, bideoak** eta bestelako material gehigarriak daude, hala nola **Walikale bideojokoa**¹³.

Materialak lantzeko modu desberdinak daude nork, norekin, nola eta zein sakontasunean lantzen diren kontutan hartuta. Fitxa bakoitzak informazio atal bat eta jarduera atal bat eskaintzen du (orrialde bat bakoitzak). Fitxek orden bat jarraitzen badute ere, era modularrean erabili daitezke, hau da, prestakuntza antolatzen duenak erabaki dezake fitxa guztiak, batzuk, edota zein ordenetan erabili.

Fitxak eta materiala lantzeko eskolek erabili dituzten modu batzuk aipatuko ditugu orain:

- **Hezitzaileen prestakuntza:** Ikasleekin landu aurretik, oso gomendagarria da irakasle eta hezitzaileek gaia lantzea eta ezagutzea. Aipatutako web orrialde eta materialak baliogarri dira horretarako. Eskola eta taldeek orientabideak behar izatekotan **ALBOAN**i idazteko aukera dute Gatazkarik Gabeko Teknologia Kanpainaren web orrialdeko kontaktu atalean (ikusi <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/contacta/>)

- **Ikasleen prestakuntza:** irakasleen laguntzaz ikasleek landu ditzakete gaiak eskolan. Irakasleak erabakiko du prozesua aurrera eramateko modua. Aukera bat da irakasleek ikasleei gaiaren inguruko azalpen labur bat eman eta haiei uztea informazioa bilatzen, horretarako beharrezkoak dituzten baliabideak eskainiz, hala nola aurretik aipatu ditugun web orrialdeak, fitxak etab.¹⁴ Gaiak dituen alderdi ezberdinak sakontzeko aukera asko eskaintzen ditu materialak, fitxek aurkezten dituzten gai desberdinei jarraiki.

- **Lehiaketetan parte hartu edota antolatu:** Gatazkarik Gabeko Teknologiaren inguruan egiten diren lehiaketetan parte hartu dezakete ikasleek, eta aukera horiek gaia lantzeko motibazio bide bezala erabili ikasleekin.

ALBOANek antolatu ditu lehiaketa batzuk, horien artean Mobile Film Challenge (ikusi <http://www.mobilefilmchallenge.org/>). Lehiaketa honen antolaketa **ALBOAN** ezezik Deusto Campus, Donostia Jesuitak eskola eta Ikastolen Elkarteak ere hartu zuten parte.

Hainbat eskolek lanordu bereziak eskaini zioten gaiari ikasgai ezberdinen barne (filosofia, ingelesa, gizarte zientzietan edota ikus-entzunezko orduak, kasuak kasu) gaia landu eta lehiaketarako bideo egoki bat prestatzeko. Ikastetxe batzuk Mobile Film Challenge lehiaketara aurkeztutako bideoak hezkuntza komunitate barruan hedatu dituzte gero sentsibilizazio kanpaina ezberdinetarako erabiliz.¹⁵ Badira euren lehiaketa propioa antolatu dituzten eskolak ere.¹⁶

- **Hezkuntza Komunitateari zuzendutako hitzaldi eta jarduerak:** ikastetxean zehar hitzaldiak, bideo forumak eta bestelako ekimenak egin daitezke ikastetxe osoari Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpaina zabaltzeko. Eskola batzuetan gaia geletan aldeztu aurretik landu eta gero ikasleek antolatu dituzte mota honetako ekimenak.¹⁷ Kasu batzuetan ikasleek aurretik aipatutako Kanpainaren kartelak erabili dituzte eta eskolan zehar eskegi, mezua hezkuntza komunitateko kide guztien begien aurrera eramateko.¹⁸

- **Erakusketa bat antolatu:** Iván Benítez argazkilariak Kongoko Errepublikan Demokratikoko Goma hiritik 70 km-tara dauden Rubayako meatzetan hartutako argazkiez osatutako erakusketa bat prestatu du **ALBOAN**ek. Erakusketaren xedea kontzientziak astindu eta teknologia-kontsumo arduratsu baten alde egitera bultzatzea da. Eskola eta taldeak erakusketa dagoen lekura ikustera joan daitezke, baina baita **ALBOAN**ekin harremanetan jarri erakusketa euren egoitza edo lokalean jarri ahal izateko.¹⁹ Erakusketarekin batera argazkiek jorratzen duten gaiarekin zerikusia duten material didaktikoak sortu ditu **ALBOAN**ek (audio-gida, bideoak, infografiak eta bestelakoak barne). Hauek guztiak eskuragarri daude honako web orrialdean: www.exposiciontlc.tecnologialibredeconflicto.org/eu/²⁰

GATAZKARIK GABEKO TEKNOLOGIAREN ERAKUNDETZEA ESKOLAN

Eskola zein beste erakunde batez ari garela, gai batekiko konpromiso maila handiena gai hori instituzionalizatu edo erakundetzen denean erakusten da. Honek esan nahi du eskolak gaia modu esplizitu batean bere prozesuen parte egiten duela. Hemen aurkezten ditugu norabide horretan doazen hainbat ekimen.

- **Gatazkarik Gabeko Teknologia baten aldeko talde dinamizatzailea:** Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpaina eskolan dinamizatuko duen talde bat jarri daiteke martxan. Taldea irakasleek, ikasleek edota hezkuntza komunitateko kide desberdinez osaturik egon daiteke. Badira hainbat eskoletan **ALBOAN**ekin elkarlanean egon diren edo dauden irakasle edota ikasleek bultzatutako taldeak, **ALBOAN**en deialdiekin bat egiteko prest daudenak. Horrela gertatzen da, adibidez, **ALBOAN**en **Gazte Sareko** parte diren hainbat taldeekin (ikusi <https://www.facebook.com/alboanGazteSarea/>) edota, hezitzaileen artean, **Eduk-alboan** ekimenean parte hartzen dute hainbat irakasleekin (ikusi <http://eduk-alboan.alboan.org/eu/>)

Kasu batzuetan, taldeak informalak dira eta banakako batzuen borondate onari esker funtzionatzen dute. Beste kasu batzuetan erakundetze maila altuagoa da eta **ALBOAN**ekin lan sistematiko bat egiten dira.

Adibidez, Donostiako Jesuitak Eskolan 1. eta 2. Batxillerreko ikasleen artean urtero **ALBOAN**en boluntario talde bat osatzen da Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainaren aldeko ekintzak planifikatu eta burutzen dituenak. Taldean parte hartzen duten ikasleek urte hasieran Kanpainako material eta aukera desberdinak aztertu eta kurtsoan zehar eskolan burutu nahi duten proiektu bat diseinatu eta aurrera ateratzen dute.

- **Gatazkarik Gabeko Teknologia Curriculum ofizialean:** Teknologia eta biolentziaren arteko loturen gaiaren aztertzeak aukera pedagogiko ugariak eskaintzen ditu proiektu moduan zein ikasgai bat jarraituz lantzeko. Alde batetik, gai zabal eta dimentsio aniztuna da eta ikasgai askorekin du lotura, besteak beste zientzia, ekonomia, nazioarteko harremanak, Giza Eskubideak eta etika. Eta bestetik, ikasleen trebetasun kognitibo eta emozionalak jartzen ditu martxan, baita jarrerak ere, posizio bat hartu eta ekimenak aurrera ateratzeko aukerak eskaintzen baititu.

Motibazio berezia duen irakasle batek momentu konkretu batean landu dezake gaia bere ikasleekin, eta horrek badu bere pisua. Baina badira gaia urtero modu sistematiko batez lantzeko apustua egin duten erakundeak. **Ikastolen Elkarteak**, adibidez, gaia eskolako curriculum ofizialean sartu du. Horretarako, **ALBOAN**en materialetan oinarrituta, Gizarte Zientzietako 3DBH mailako testuliburuan teknologia eta biolentziaren arteko loturak eta lotura horiek apurtzeko gakoak aztertzen dira.

- **Erosketa etikoa, erabilera arduratsua eta birziklatze politika:** gatazkarik gabeko teknologia sustatzen duen erakunde batek pausoak eman behar ditu gatazka teknologia gabeko gune bilakatzeko, hots, eskolak berak egiten duen teknologia erabilera aztertu behar du eta ahalik eta modu etikoaren batean zuzentzeko pausuak eman. Teknologia produktuekiko eskolak hartzen dituen erabaki guztietan eta produktuek eskolan duten bizitza ziklo guztia kontutan hartuz egin behar da analisia, hau da, produktuen erosketa, erabilera eta bazterketa prozesuak hartu behar dira kontutan.

Honetan laguntzeko, **ALBOAN**ek sortu ditu erabakiak hartzen lagundu dezaketen irizpide batzuk zehazten dituzten dokumentuak, horien artean honakoak: **“Produktu elektronikoak arduraz kontsumitzeko gida”** (ikusi https://www.tecnologialibredeconflicto.org/wp-content/uploads/pdf/GUIA-CONSUMO-RESPONSABLE_EUSK.pdf) eta **“Produktu elektronikoaren erosketa publiko etikoa: beharrezkoa den eztabaidea izateko ideiak”** (ikusi <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/erosketa-publiko-etikoa/>).²¹

- **Gatazkarik gabeko teknologia baten aldeko adierazpen instituzionala:** Ikastetxeak Gatazkarik Gabeko Teknologiaren alde dagoela erakutsi dezake, Eskola Kontseiluan (eskolako ordezkariak gorenak baita) adostutako Adierazpen Instituzional baten bitartez. Honakoa erakundetze prozesuaren goi pausu bat litzateke, teknologia eta biolentziaren arteko loturekin hausteko eta gatazkarik gabeko teknologia bat lortzearen aldeko ibilbideari ekin eta eusteko borondate global eta tinko bat adierazten baitu eskolako estamentu guztien aldetik.

Adierazpen instituzionalak plangintza bat egiteko konpromisoa dakar, eskola proiektu bat gatazkarik gabeko teknologia baten alde egiteko hasieratik aipatu dugun ibilbidea gorpuzteko bitartekoak ezartzea alegia. Ekimen hau Enough Project-en **“Conflict Free Campus Initiative”** egitasmotik (<https://enoughproject.org/get-involved/cfci>) hartutako ideia da.

Dokumentu honetan adibide eta aukera batzuk baino ez ditugu azaldu. Beste ekimen bat ezagutzekotan edota gatazkarik gabeko teknologia baten aldeko ibilbidea hasteko orientabideak behar izatekotan, harremanetan jarri gurekin www.gatazkarikgabekoteknologia.org web orriko kontaktu atalaren bitartez.

¹ Dokumentuan zehar ikastetxeak aipatuko badira ere, proposamen gehienak aisialdi talde edota beste elkarteentzako baliagarri ere suertatu daitezke.

²Done Jakue bideko “Erromes Kredentziala” dokumentu ofizial bat da. Bertan bidean zehar dauden hainbat puntuetan zigilu batzuk ezartzen dira. Garrantzitsua da “Compostela” edo bidea egin delako ziurtagiria eskuratzeko, azken 100 km-tan egunero 2 zigilu lortzea, oinez edota zaldiz doazen kasuan, eta azken 200 km-tan bizikletaz doazen kasuan. Kredentziala ezinbestekoa da ibilbideko erromes aterpetxeak erabili ahal izateko.

³Enough Project-en web orrialdea honakoa da: <https://enoughproject.org/>

⁴Besteak beste Arrupe Etxeko “Gatazkarik gabeko teknologiaren aldeko eskolen topaketan”, Externant des Enfants Nantais de Nantes eta Nuestra Señora de Begoña eskolekin, Bilbon 2015ean; “Gatazkarik gabeko teknologiaren aldeko aste solidarioan”, San Ignacio de Pamplona eskola, Iruñean 2015ean; “Kongoko konfliktoa: Gatazkarik Gabeko Teknologia” kanpaina, Mundaiz eskola, Donostian 2017an.

⁵Sustainability Warriors Euroeskola 2015. urteko lehiaketan Ibaialde BHIko eskolak burutu zuen ekintza hau.

⁶WhatsApp bidezko difusioa “Mugikorren Erabilera” kanpaina Atarrabiako eskolak burutu zuen 2015ean bideo baten bitartez; bestalde, posta elektronikoaren difusioa “Eta zure mobila zer?” Kanpaina Gernikako eskolak burutu zuen 2015ean.

⁷Iñaki Ochoa de Olaza ikastetxea izan zen honako ekintza burutu zuena 2016. urtean “Mugikorrek ezkututzen dutena” kanpainaren barruan.

⁸Resurrección Maria De Azkue Ikastola izan zen Gatazkarik Gabeko Teknologiaren leloa aurkeztu zuen eskola, “Lekeitio Gatazkarik Gabeko Teknologiaren alde” kanpaina 2016. urtean, leloa “sentitu, pentsatu eta ekin” izan zen.

⁹Ekintza honetan parte hartu duten eskolen artean honakoak daude: Atarrabiako eskola 2015ean; Iñaki Ochoa de Olaza ikastetxea, Iruñean 2016ean; eta Araxes eskola 2015ean.

¹⁰San Ignacio de Pamplona eskolak burututako ekintza batetik datorkigun adibidea da.

¹¹Material hau guztia ALBOAN-en Gatazkarik Gabeko Teknologia kanpainaren web orrialdean dago eskuragarri: www.gatazkarikgabekoteknologia.org Bertan hezkuntza materialen atal berezi bat dago: <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/hezkuntza-materialak/>

¹²Fitxak eskuragarri daude honako estekan: <http://www.educacion.alboan.org/eu/materials/322>

¹³ Ikusi <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/walikale-online-jokoa/> Bideojokora zuzenean sartzeko <http://www.walikale.org>

¹⁴Honako ekintza hau burutu zuten eskolen artean Iñaki Ochoa de Olaza ikastetxea, Iruñean 2016an; eta Mundaiz eskola, Donostian 2017an aurki ditzakegu.

¹⁵Hala egin dute adibidez Donostiako Jesuitak eskolako ikasleek eta Donostiako Deustoko Unibertsitateko “Identitate eta misioa” ikasgaiako “Ikasketa eta Zerbitzua” atala ALBOAN-en burutzen duten ikasleek. Beraiek egindako bideoak Gatazkarik Gabeko Teknologia baten alde egiteko euren proiektuetan erabili dituzte.

¹⁶Badira beste adibide batzuk, hala nola BHIko Sustainability Warriors eskolak Sustainability Warriors Euroeskola 2015. urteko lehiaketan Gatazkarik Gabeko Teknologiaren aldeko kanpaina sortu zuen 2015ean, 2015eko Europako garapenaren urteari zuzendutako euroeskola lehiaketaren XXI. edizioan parte hartuz.

¹⁷Adibidez Gatazkarik Gabeko Teknologiaren Formakuntza Betelun, Araxes eskola, 2015ean; “Eta zure mobila zer?” Kanpaina, Gernikako eskola 2015ean; “Bat egiten dugu aldaketaren alde!” Kanpaina, Nuestra Señora de Begoña – Jesuitak eskola, Bilbon 2016ean; “Kongoko konfliktoa: GGT” kanpaina, Mundaiz eskola, Donostian 2017an; “Konfliktorik gabeko teknologia Santurtzin” kanpaina, Axular Ikastetxea, Santurtzin 2017an.

¹⁸ALBOAN-en kartelak eskegi dituzten eskolen artean honakoak aurki ditzakegu: “Mugikorren Erabilera” kanpaina Atarrabiako eskola 2015ean; “Zure mugikorrek ezkututzen duena” kanpaina, Zizur DBH eskola, Zizurren 2015ean; eta “Eta zure mobila zer?” kanpaina, Gernikako eskolak 2015ean.

¹⁹Honakoa IES Barañain eskolaren inizatiba izan zen 2017. urtean, “Teknologia eta emakumeen aurkako indarkeria Kongon” kanpaina.

²⁰2018ko urtarrilean Donostiako Deustuko Unibertsitatean antolatu da erakusketa Deustuko ikasle talde batek lagunduta.

²¹Produktuak modu etiko batetan ekoizteko enpresek egiten duten esfortzuaren inguruko informazioa eskuratzeko ikusi gure kanpainaren web orrialdean honako esteka: <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/eu/faq#empresas>